


Astekaria

BARREN

elgoi



INTERIOR^{E,S}

Sarruleaa

e e.51

- Proiektuak eta erreformak
- Lokal komertzialen eta etxebizitzaren berrikuntza
- Sukalde eta komuntzako altzariak

Errosario 15. ELGOIBAR z/r 74 40 19 / 55

MIMOX

*Gure 3. urtemugan berrikuntzak
egin ditugu. Iggero 72 R
Erosketa bakoitzeko Cffibin MT
daukagu ouvw\Ti*



EIBAR

*Urkizu Pasealekua, 11.
(Otheako Dorrea Lelienengo solairua).
Tfiloak: (943) 12 02 00 - 12 02 04*

OSASUNDEGIA

- | | |
|-------------------|-----------------------------|
| 1- Alergologia | 9- Otorrinoiaringologia |
| 2- Kardiologia | 10- Pediatria |
| 3- Zirurgia | 11- Psikiatria |
| 4- Dermatoiogia | 12- Radiologia |
| 5- Ginekologia | 13- Traumatologia |
| 6- Laborategia | 14- Urologia |
| 7- Barne medizina | 15- Dietetika eta nutrizioa |
| 8- Ortodontzia | 16- Foniatria medikoa |

ARGTARATZAREA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegia.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugartelpuru.

ERREDAKZIO KONTSEIWA:

Iñaki Arrieta, Antion t3ergara,

Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sarasua.

KAZETARIAK:

Ainhoa Iodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATLAILEAK:

Maite Rementería,

Edu Sanz.

PUBLIMATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuaste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegia, liziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Myriam Aldazabal, Isabel Ansoa, Nere Arostegi, Goizon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara Burgaina, Urtzi Etxabe, Asier Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix Etxeberria, izaro Etxegibel, Enelz Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose Mari Galcbs, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Amaia Gorostiza, Alfonso Guil 16, Maite Iriondo, Ekaitz Isasi, KOKOE, Enrique Iarrattaga, Imanol Larrañaga, Haritz Lean, Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya, Iñaki Odriozola, Ixa Sanchez, Jose Inazio Sarasua, Oihana Tarragual, Alain Ulazia, Olga Unzilla, Igor Vazquez, Ana Vila, Miryam Villasante, Alaitz Vives, Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Otiati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoiBARRENez ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

ZENBAT BURU

HAINBAT ABURU

Artea eta industria

11 au da, antza, mende bukaera honetan XIX. mende hukaeran sortu eta XX.eko protagonista ukazina izan den zinema-gintzak bizi duen oreka zaila. Zinemagintzak, nere ustez, telebistarekin batera, kultura bisualaren demokratizaziorako balio izan du, horrela artean nagusi zen printzipio elitista hautsiaz, berori gutxiengo pribilejiatu baten gozamenerako zerbait baitzen. Besterik ez bada, horregatik zinernagintza erreinbindikatu beharko litzateke. Baina askoz gehiago da, gainera.

ZINEA, horrela, hizki haundietan idatzita, artea, ikuskizuna, infirmazio eta komunikabidea, denhorapasa. [deologientzako adierazpidea, mito eta amets fabrika, ezagupenerako tresna, historia agiria eta bizi deneko garaiaren isladapen soziala da... Baina halaber industria bat dugu, milaka milioi pezeta mugitzen dituen industria, eta filmeak dira produktua. Beronek ematen dizkie ekoizle, zuzendari, banatzaile eta exhibitzaileei dirusarrerak eta honexek dakar berarekin aniskua, filma egiterakoan soilik takila kontuan izatearena, alderdi industrial-komertziala alegia, eta gaitasun eta konprotezu artistikoa haztertearena.

Zergatik diot arriskua? Kontuan izan behar baita zinea jokabide sozialetan eragin zuzena duten mito eta irizpide kulturalak sortzeko tresna pribilejiatua dela. Hain zuzen, takilei erantzutearren, gero eta maizago produkzio haundiak ikusten ditugu, teknikoki Illuragarriak, haina indarkeria karga izugarriak dituztenak eta gizarte eredu arbuigarriak erakusten dizkigutenak.

Egia da izua eta sadismoa badaudela, eta logikoa da zineak, beste edozein arte bezala, beroiek isladatzea, haina egia da baita ere hori jan'era kritiko batetik egin beharko litzatekeela, edo behintzat ez ia aldeko ikuspegi batetik, edo eta benetako sarraskiak ia gauza "normaltzat" hartuaz. Izan ere, zinea ikusleari lankidetzat intelektual murriztena eskatzen dion artea baita, eta aitzitik, patehartze emotibo haundiagoa, horrela filineetan ikusten ditugun pertsonaia eta egoerak barneratzen ditugularik.



Agian hauze da zinearen handitasuna. Guztiok ezagutzen ditugu maisultm merkeak eta aurrekontu haundia izan duten filme nardagariak, haina zine-areto hatean ezik, ilunpetan eta pantaila haundi baten aurrean, gaitza litzateke beste inon, norberarena ez den bizitza baten kide izatea eta pantailan gertatzen dena guri jazoko bailitzaigun moduan barre edo negar egin, izutu edo hunkitzea.


Nere aburuz telebista bezalako ordezkoez ez dute balio. Ezinezkoa da egongelan, sukaldean eta are gutxiago ohean zinearen "inajia", mirari hori bizitzea. Hori filme batzuetan gertatzen da, itzal eta argizko jokoaren bidez, kolore eta hitzaren bidez ikuslearen hetsarean eta irudipenean giza-esperientzia propioa bihurtzea lortzen duten fillneetan.

Euskadiko zenbait herritan zine aretoak isten joan dira azken urteotan eta, kasu askotan, zaletuek hiriburuetara joan beharra izaten dute pelikula herrien atzetik. Elgoibarren gauza bera gertatu da, eta hiru zine aretoetatik bakarra gelditu zaigu, Capitol zena. Waletxeak, berritu ondoren, Herriko Antzokia bihurtu du, herritarren artean zinearekiko zaletasuna gal ez dadin.

Izango dugu, beraz, gozatu edo sufritzeko aukera (hori bai, mesedez "sakrilejiorik" gabe, palomita, pipa eta gainontzekoak kanpoan utzita), "Fresa y Chocolate", edo "Tomates verdes fritos" en moduko adiskidetasunari egindako kantuekin, edo "Asesinos natos", sadismoa eta odola litroka isurtzearen maila gorenarekin. Gero adiskideekin komentatu eta berbizitza posible izango da, edo hobeto, zine-fortunak antolatuta ahal izango dira, filmeak fotogramaz fotograma aztertu ZINEAri zuku guztia ateratzearren.

Itziar Fernandez Mendizabal

Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria



Asteartetan Herriko Antzokian ematen dituzten pelikulak, zergatik ematen dituzte egun horretan bakarrik?

Kultur Batzordeko teknikariak esan digunez astearteetako pelikulak garaiz kanpo (gainontzeko herrietan emandakoak) daudenak izaten dira. Pelikula hauek besteak baino merkeago lortzen dituztela ere esan digu.

12j 1111411

Ikastolako sei urteko haur baten aitak deitu digu zera esateko: "Herriko Antzokira pelikula bat ikustera joan ziren haurrak eta pelikula gazteleraz izan zen. Haur euskaldunek, ez al dute telebistan nahikoa pelikula eta marrazki bizidun gazteleraz, ikastola orduetan ere gaztelerazko pelikulak ikustarazteko?" Gai bereraren aritik dator ikastolako 6. mailako bi neska salatu nahi dutena: Pelikulei buruzko azalpenak gaztelera hustean ematen omen dituzte eta hau ez zaie batere egokia iruditzen.

TI11,021

Irakurle batek deitu digu Nafarroa Enparantzan (Garagarza erlojudenda parean) ipini dituzten lorontzi erraldoiak benetan aproposak eta politikak direla esateko. Ipini dituenari txalo bat bere partez.

HIESaren informaziorako eta prebentziorako astearen balorazioa

Urriaren 10etik 16ra bitartean, Errotatzok HIESaren informaziorako eta prebentziorako astea antolatu zuen. Era askotako ekintzak, jardunaldiak egin ziren: HIESari buruzko hiru hitzaldi, antzerki bat, argibide mahaiak, erakusketak monografikoak eta HIESaz hil direnei omenaldi bat kalean. Jardunaldiei bukaera emateko giza-kate batek zeharkatu zuen herria.

Aste horri buruz balorazioa egiterakoan, Errotatzok guztiz positiboa izan dela uste du, bai jardunaldietara joan den jendeagatik, bai eta haietan egindako galdera eta partehartzean ipinitako interesa eta kalitateagatik ere.

Afektatueki n "elkartasunean" aurrerapausu bat eman dugula uste dugu eta jendearen kontzientziarioa handitzen ari dela, zoritxarrez guk nahi genukeena baino polikiago.

Aipatzekoa da, Udaletxe goreneko arduradunek adierazitako sentsibilitate eskasa. Ez ziren jardunaldietara

agertu ez eta inolako laguntzarik eman ere, (bazter batean geratu ziren) honen bidez interes falta adieraziz.

Hala ere, jasotako harrera ikusita eta bide honetan aurrera jarraitu behar dela ikusirik, Errotatzok "HIESaren Egundiala" ospatuko du abenduaren lean. Ekitaldi honetan, Euskal Herriko erakunde eta kolektibo askok hartuko dute parte, hurrengo ekintzak burutuko ditugularik: teiho eta balkoietan izara zuria lazo gorriarekin jarriz, mahai informatiboak, kontzentrazioak, e.a.

Azkenik, herriko hurrengo kolektibo hauen lankidetzara eskertu nahi dugu: Haritz Dantzari Taldea, Txalaparta Taldea, Bertsolari Eskola, Zazpiki Irratia, BereziKi Taldea, Ekekei Antzerki Taldea, HIES Ekimena, T-4 eta Madrilako "Ciempies" Laguntza Taldea.

Errotatzok

HARRIOPRIBIGOIKO ERROTAREBBITARRAK





Aste honetan, **Maritxu Agirregomezkorta "Markoni"**k ekarri digun 1957. urteko erretratu polit hau San Bartolorne Txiki Egunean aterata dago San Frantzisko iturri parean. arta bana eskuetan duten neska kuadrila ikus daiteke bertan.

Ezkerretik eskumara: **Maria Luisa Iribarren, Delfina Arriola, Mari Tere Bastida, Agustina Uria, Maritxu Agirregomezkorta "Markoni", Rosi Iriondo, Maria Luisa Inza, Miren Artola, Arrate Zuazubizkar** eta **Ana Mari Arriola**.

Zergatik ote dauden tarta bana eskuetan galdegingo zion dagoeneko batek baino gehiagok bere buruari. Ba, hona hemen Maritxuk eman digun azalpena: "Delfina eta Ana Mari ahizpak, "Arriola Taberna"koak ziren. Arriola taberna San Frantzisko kalean zegoen, gaurregun Oraiko taberna dagoen lekuan, gutxi gora behera. Muruamendiaraz gozotegiak ez zeukan orduan gaur egun bezala etxex etxeko banaketa zerbitzurik eta nork bere pastelak eraman behar izaten zituen. Delfinak eta Ana Marik bedera-tzi tarta zeuzkaten tahernara eramateko eta kuadrilakoei esan ziguten laguntzeko. Esan eta egin. Instantanea bitxia osatzen genuenez, haten batek honako argazki hau atera zigun. Polita, ezta?"

Pinturas Elgoibar topme



- Pinturak
- Enpapelatuak
- Gotele
- Igeltsuzko dekorazioak
- Lurrak
- Pinturajaponiarra, etab.

Fermin

Urasandi z/g
(Anayak efxea)
Tel: 74 39 91

Arrillagay INPRIMATEGIA

**DISEINUA - FOTOKONPOSIZIOA - ETIKETAK, CARPETAK ETA
KARTELAK, FOILETOAK, KATALOGOAK - TIPOGRAFIA - OFFSET**
penbide, 13 behea.ELGoisAR. r= 74 01 87 Fax: 74 27 40

UDAL LIBURUTEGIA:

21 LUM **it beko whit gehiago**

Bi urte igaro dira Udal Liburutegiak itxuraz aidatu zuenetik. Orduetik hainbat zerbitzu berri jarri dira martxan. Ez hori bakarrik, haurren artean irakurzaletasuna bultzatzeko kanpainaren barruan ilustratzaileen erakusketa eta ipuin kontalarien saioak antolatu dituzte azken aldian. Gabonetan Taupadarekin batera zenbait ekintza antolatzekotan dabilta eta datorren urtera begira ere, nagusiei zuzendutako kanpaina burutzeko asmoa dute.



• E Liburuak, konpaktoak, aldizkariak, komikiak... denetarik dago liburutegian.

Azken aldian izugarriko "boom" a izan du Liburutegiak. Arrunt biakatu da arratsaldero Liburutegia jendez gainezka topatzea. Berrikuntzen ostean Liburutegiko langileen nahia ordura arte zegoen "desmadrea" ebitatzea bazen ere, asnao hutsean geratu zen nahi hori, oraindik orain Elgoibarko Liburutegian ez baitago liburutegi serio bati dagokion ez formalidadetik ez eta isiltasunik ere. Liburutegiko lanmeke esan digutenez, gazte asko hertara, beste asko karretatik gabe, beste batzuek erre egiten dute eta isiltasunik ezin daiteke lortu. Ikasteko isiltasun osoa behar dutenez, gune itxi bat dago. "La capilla" izenaz ezaguna dena. Opo-

sizioak presta-tzen daudenak eta Uniber-tsital ikasketak egiten dihardutenak egoten dira han.

Berrikuntzak eta zerbitzu berriak

Duela bi urte sakonki eraberritu zuten Liburutegia. Ordura arte zeuden zerbitzuez gain, beste zenbaitzu jarri ziren martxan:

- **Herneroteka:** Gai guztiei buruzko aldizkariak eta hizkuntza ezberdinetan jasotzen dira Liburutegian. Aldizkari espeziali-

zatuena ere bertan aurki daitezke. Egunkariei dago kienean, Euskal Herrian argitaratzen diren guztiak gordetzen dira sei hilabetez zehar

- **Fonoteka:** Orain arte oso gutxi erabili izan den zerbitzua da. Bi Compact Disc aparailu daude bertan entzun ahal izateko baina jendeak apenas erabili duen. Liburuekin egiten duten bezala, konpaktoak ere etxera eramateko aukera dago. Hau horrela

den momentutik izugarri erabiltzen hasi da zerbitzua hau.

- **Fototeka:** Liburutegiak Udal Argazki Artxiboaren ardura hartu zuen. Sailkapen lan mardul bat egin ondoren, lekuen eta gaien arabera daude gordeta. Argazkien bilduma interesgarri bat egiteko asmotan, herritarren laguntza eskatu zuten jendeak etxean zituen argazkiak eramateko. Herritarren erantzuna oso kaxkarrak izan zen.

- **Komikiak:** Kokoc komiki elkartearen esku dago komikien aukeraketa. Liburutegiak diru kopuru bat ematen die urtean komikiak erosteko. Argitalpenen aukera oso zabala da eta komikiak irakurtzera jende asko joaten omen da.

DATU AI PAGARRIAK

- LIBURU KOPURUA: 16.000
- KONPAKTO KOPURUA: **150**
- 94AN EKARRITAKO LIBURUAK: **659**
- BAZKIDE KOPURUA GUZTIRA: **2.560**
- 94AN EGINDAKO BAZKIDEAK: **500**
- EGUNERO ALDATZEN DIREN LIBURU KOPURUA: **80**
- LIBURU BAT EDUKITZEKO EPEA: **15** egun (berritu egin daiteke)
- LIBURUAK EROSTEKO: **1.700.000** pta.

MARIA EUGENIA GONZALEZ, Liburutegiko langilea

- **Noiztik liburutegian?** Duela 6 bat urtetik.

- **Gustuko lana al da?** - Bai, oso polita da. Jendearekin harremanetan egotea polita da baina alde onak dituen bezala txarrak ere baditu. Txarreno errespetu falta da eta beraien arteko solidaritate falta.

- **Zerk ematen dizue lan gehien?** - Jendea kontrolatzea eta isiltasuna lortzea. Ia ezinezkoa da.

- **Zer da gehien irakurtzen dena?** - Askotan jendeak esaten digu: "zer emango didazu irakurtzeko?", eta guk liburu bat ematen diogu, norma-

lean guk irakurri duguna. Jendeak jarrera komodoa dauka, ez du edozer irakurtzerik nahi. Beraiek badaukite guk emandako liburuak gustuko izango zaizkiela.

Irakurri duzun azken liburua? "El ocho", oso ondo dago.

- **Zer eduki behar du liburu on batek?** - Liburu bat ona izateko, entretenigarria izan behar da. Gero, norberaren exigentzien arabera, zailtasun maila ezberdinak daude.

- **Zer falta zaio Liburutegiari?** - Beti falta da zeozer, berritu beharra duten liburu zaharrak asko daude



oraindik.

Eibarko liburu azokara joateko asmorik? - Bai, beti joaten gara zer dagoen ikustera.

Beste zenbait zerbitzu: Egunkarrietan agertzen diren lanpostu euztiek eta holetinetan agertzen direnekin ere, lanpostuen zerrenda egiten dute eta jendeak eskuratzeko moduan egoten da.

Liburutegiak urtean 1.700.000 pta gastatzen ditu liburuak erosten eta irakurketa bultzatzeko kanpaina eta antzerako ekintzak burutzen. Liburuak erosterakoan, kontuan hartzen da jendeak liburu bat eskatzen duen ala ez, normalean bi aldiz eskatzen diren argitalpenak eskuratu egiten dira. Zahartutako liburuak ere gaurkotzen saiatzen dira, etengabe berritzen diren zientzien kasuan batez ere, informatika, medikuntza... Zenbait gaitan, oso ondo hornituta dagoela esan daiteke. Zuzenbidean esaterako, oposaketak egiteko joaten zaien jende kopurua dela eta, Zuzenbideko fakultatera jo zuten zein liburu edukitzea komeni zitzaizen jakiteko. Egun zuzenbidean argitaratu diren liburuen artean kalitatezkoenak liburutegian aurki daitezke. Kaleratuta-



• **Isiltasuna lortzea da langileen erronkarik handiena.**

Historia apur bat

Orain ezagutzen dugun Liburutegia ez da beti leku berean egon. 1962. urtean Udallzaingoan zegoen, gero azoka plazako goiko solairura aldatu zuten. King-Kong-a eraiki zutenean, bertara eraman zuten, gaurregun dagoen tokira, alegia. Hamabost bat urte darama bertan. Orain dauden bi langile gazteak lanean hasi aurretik, beste modu batera funtzionatzen zuen Liburutegiak. Luis Ostolaza zen liburuazaina eta haren jakituriari esker, orduko kalitatezko liburu interesgarri

asko daude gaurregun. Langile berrieekin, erabat aldatu zen liburutegiaren martxa. Liburuak sailkatzeko teknika berriak erabiltzen hasi ziren, arau berriak jarri zituzten, aurrerantzean bazkideak ez zuen ezertxo ere ordaindu behar, eskoletara joaten hasi ziren... Laburtuz, Liburutegia ezagutarazteko eta jendea bertara joateko eginahalak egin zituzten. 200 bazkide baziren, laster, 2000tik gora igo zen kopurua. Izan ere, gaurregun 2560 bazkide ditu Liburutegiak.

ko azken nohelak ere lehenbaitlehen eskuratzen dituzte.

Irakurtzeko ohitura

Irakurtzeko ohitura badaoela uste dute Liburutegikoek. Datuak adierazgarriak dira: 2560 bazkide, egunero 80 bat liburu aldatzen dira... Liburutegia ez da intelektuentzat eta jakintsuentzat bakarrik. Etxekoandean artean asko hedatu da irakuzaletasuna, mota bateko nobela irakurtzeko zaletasuna batez ere. Nobela arinak, "bihotzekoak" deitzen direnak asko, baina liburuak azken finean.

Euskaraz irakurri

Euskaraz idatzitako liburu eta argitalpenen aukera zabala izan arren, bakar batzuek baino ez dute euskaraz irakurtzen. Haurrek, berriz, irakurtzen duten guztia euskaraz irakurtzen dute, izan ere, Liburutegian apenas daoen gaztelarazko haurren ipuin edo argitalpenik. Baina 14-15 urterekin, euskarazko literatura baztertu egiten dute eta gaztelaraz irakurtzeari ekiten diote.

Fotero

OKINDEGIA
OPIILDEGIA

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

BATZOKIII

JATETXEA
ETA
TABERNA

P. Pluguruzu 8. .zr 14 071 21

ITURGINTZA

GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

ARMUETA

Baserriko
haragietan
berezia



Harategi Urdaitegia

San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40



IDARRAGA
KAFEAK

Eguneroko errealdiak

San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39



PINTXO HOTZAK BEROAK
ETA KAZUELATXOAK

91.1

4th.nr

Santa Klara -22
Tr 74 26 32

Nork ez du izan inoiz liburu bat esku artean?

xikitatik irakurtzen irakatsi digute. Txikiak ginenean liburuak marrazki asko eta letra gutxi izaten zituzten erakargarriak izateko. Nagusitzen garen heinean liburu mota ezberdinak erabiltzen ditugu. Azken finean, liburuak gure bizitzaren parte dira.


Historian zehar liburuak kulturaren islada izan dira eta hauetan gizateriaren jakintza osoa aurki dezakegu. Liburu didaktikoez gai, badaude entretenitzeko eginak daudenak ere.

Liburu hauek irakurtzeak ihesbide bat suposatzen du irakurlearentzat; beti egon daiteke liburu bat eskura hondartzan, mendian, trenan... edonon. Bakarrik liburua ireki eta irakurtzen hasi. Liburu baten barruan sartzean, pertsonaiekin milaka abentura bizi edota milaka toki ezberdin ezagutu ditzakezu; guzti hori zauden txokotik mugitu gabe.

Liburu bat interesgarria suertatzen zaizunean, irakurtzen hasi eta ezin izaten duzu utzi. Istorioaren bukaera ezagutzeko irrikaz zaude baina horretarako azken orrialderai-

no irakurri behar duzu.

Norberak bere gustuak izaten ditu; niri adibidez, akziozko eta abenturazko liburuak gustatzen zaizkit batipat. Hauetaz aparte, beste genero asko daude: fikzioa, fantasia, maitasuna... Liburu bat zure gustukoa ez bada, onena liburu hori utzi eta beste bat hartzea izaten da. Ez bazaizu gustatu, utzi irakurtzeari, beste bat aurkituko duzu eta.



ANDER ZUBIA



Mandiola — **Egurrak**

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. z' 74 12 56 - (mugikor.) 908 I 7 10 42



Ba al duzu irakurtzeko zaletasunik?



TERESA GARAGARZA

58 urte, etxekoandrea

Ez asko. Periodikua piskat begiratzia gustatzen jata, danetik piskat, baina liburuak ez. BARREN ere irakurtzen dot, zelan gauzak motz ekartzen ditxuan...



IÑAKI BERISTAIN

58 urte, jubilatua

Gutxi, oso gutxi. Bueno. egunkaria egunero irakurtzen dut goitik behera, bai politika, bai kultura, bai kirolak... Baina liburuak, bat ere ez.



M. JESUS GRANERO

10 urte, ikaslea

Bai, abenturazko liburuak irakurtzen ditxut astian behin edo. Nahiko liburu luziak izaten dira baina nik nahi dotelako irakurtzen dot, ez eskolan bialduta.



MIGUEL AGIRRE

24 urte, komertziala

Bai, asko irakurtzen dut, etengabe. Denetarik gainera, eskuartean hartzen dudan guztia, zinea, majia, nobela poliziakoak... Aldizkariak ere bai.



LUISA SOTO

60 urte, etxekoandrea

Ez dakit oso ondo irakurtzen. Helduentzako Eskolan hasi nahi nuen baina lana dela eta ez dut denborarik hartu. Egunkaria begiratzen dut piskat.



LUIS KORTABITARTE

24 urte, makina kontrolatzailea

Gustatzen jat irakurtzia, gehixen abenturazkoak. Azkena "La zona de eristal" izan da. Mendiko aldizkariak ere irakurtzen ditut, "Desnivel", "Pirenaica"...

ASESORIA
1)/5

AHOLKULARITZA

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome I hehea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behea. v 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Muruamendiarrak
ELGOIBAR
COZOTEGIX

EdAutaotee
da~ **9a, z4L**
Pad.t ~
70~6
/~ **14**
vdc ~

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

■ Txanpon bilketa minbizia sendatzeko

Elgoibarko Gurutze Gorria inizatiba bitxi baten bultzatzaile bihurtu da, zera proposatu baitu: Altsasuko gazte bat minbiziaz jota dago eta sendatzeko 40 milioitako tratannendua behar du. Dirua jasotzeko lau txapon ilara osatzea proposatu du Gurutze Gorriak igande honetan, hilak 13, Udaletxe inguruan. Goiz partean hasiko dira txanpon ilarak osatzen, bat 5 ptakoa, beste bat 25 ptako txaponena, hirugarren bat 100 ptakoa eta azkena 500 ptako txaponena.

■ Liburu azoka Eibarren

Eibarko II. Literatura Astearen barruan liburu azoka irekita egongo da Unzaga Plazan hilaren 11tik 20ra bitartean. Testuinguru honetan hitzaldiak, mahainguruak eta beste zenbait ekitaldi burutuko dira. Eibarko Udaleko Kultur Sailaren laguntzarekin, Mandragora aldizkariak eta ...eta kittolko Literatura Batzordeak antolatuta, adin guztietako jendea erakartzea da asmoa.

■ Baionara txangoa Zaharren Biltokiarekin


Elgoibarko Zaharren Biltokiak Baionara txangoa antolatu du hil honen 23mko. Goizeko 8,15etan Plaza Handitik irtenda, Irunen egingo dute lehen geldiunea. Bertan gosaldia egingo dute, ondoren sendagaien erakusketa izango da, eta pasiatzeko aukerarik ere izango dute. Irunen bazkaldu ostean Baionarantz irtengo dira; bertako katedrala bisitatuko dute eta hiria ezagutzeko denbora librearekin ere izango dute. Arratsaldeko 7etan etxerako buelta egingo da. Izena emateko Zaharren Biltokira zuzendu goizeko 10etatik 12etara bitartean.



San Lazaro egoitzan Kutxa Fundazioaren diru laguntzaz, Rafa Berasategik eta Koke Lasak egindako diapositiba emanaldia izango da datorren astelehenean, hilak 14, arratsaldeko 5etan. Asteleheneko saioarekin bukaera emango zaio Berasategi eta Lasak prestatutako hiru saioeko diapositiba emanaldiari. Lehen saioa Goiherri-Cho Oyu espedizioari buruzkoa, hilaren 7an izan zen, eta bigarrena Andeei buruzkoa, Bolivia eta Ecuador hain zuzen, gaur, hilak 11, izan da. Asteleheneko saioan Tibet eta Nepalen ateratako diapositibak ikusi ahal izango dira.



Igande honetan, hilak 13, urteroko ohiturari jarraiki, Deba bailarako gaiso eta ezindu fisikoen topaketa burutuko da. Jai egun bati dagokion modura, meza izango dute eguerdiko letan Zaharren Biltokian eta ondoren lagun arteko bazkaria. Topaketa honetan parte hartu nahi duten gaiso eta ezindu guztiek honako zenbaki honetara dei egin dezakete: 74 32 00 (Felix). Argazkia Gernikan ekainean ateratakoa da eta hertan agertzen direnak Elgoibarko ezinduak eta hauen senideak dira.



AITOR ZBALA

Opel etxearen izenean, Teofilo Romero Espainiako Opelaren ordezkariak, Opel Astra 1,4i auto baten motorra eta honen instalazio elektrikoa eman zion Elgoibarko Lanbide Hezikettuako Institutuari iragan den asteartean Elgoibarko Analsa tailerrean izandako ekitaldian. Ekitaldian Analsako gerentea den Angel Mari Ansola eta Lanbide Heziketako Institutuko zuzendaria, Carlos Ansola, izan ziren. Motorra Institutuko automotzioko ikasleek erabiliko dute praktikak egiteko.



J. L. BELLOSO

Maalako eliz barrutiko 16 gazte konfirmatu ziren joan den igandean ordu t'erdi iraun zuen ospakizunean. Argazkian, Jose Antonio Pagola hikario na.gusia, erdian, eta alboetan konfrimatutako gazte gehienak agertzen dira. Ekitaldi polita izan zela esan digu Jose Luis Bellosok, Maalako eliz barrutiko arduradunak. Pagolak hitzaldi interesgarria eman zuen eta ekitaldian soinu-joleak aritu ziren.

11 Chaves tiraldia eta gaztain errealdia

Festa Do Agosto deritzona ospatuko dute galiziarrek igandean. hilak 13, Urasandiko Galiza Plazan. Arratsaldeaz, 4ak aldera, auzotan'en arteko Chaves partidak izango dira, jarraian gaztainak erretzeari ekingo diotelarik. Gaztainekin batera Galiziako ardoa banatuko da doan.

■ Intsumisoen entzerrona izango da astebukaeran

Gartzelan gose greban dauden 43 intsumisoekin elkartasun modura, Euskal Herriko Talde Antimilitaristak ekintza ezberdinak burutuzen ari dira egunotan. Elgoibarko Talde Antimilitaristak konkretuki, entzerrona bat hurutuko du astebukaera osoan zehar. Itxialdia gattr, ostirala, iluntze aldera hasiko da. Azoka plazan kalera inen gabe egoteko asmoa dute Antimiliek igande eguerdira arte, hilak 13. Elgoibartar guztiak itxialdira joatera animatu nahi dituzte Antimilikoek.

■ Eskubaloi Taldearen bilera

Elgoihar K.E. Eskubaloi Taldeak egoera ekonomikoari eta finantziabideei buntz hitz etliteko bilera egingo du larunbatean arratsaldeko 7,30etan Kultur Etxean. Bileran parte hartzera dei egiten zaie taldekideei. Bide batez, abenduaren 22an zozketatuko den Loteria Nazionaleko 05.464 zenbakiaren 100 ptako partizipazioak salgai dituztela jakinarazi nahi dute.

■ Odol ateraldia 8an

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko talde bat Elgoibarren izango da datorren ostiralean hilak 18, ohizko odol ateraldiak egiteko. Ateraldiak egitera deitutako herritarrak P. M. Urruzuno 8ko lokaletik pasa daitezke arratsaldeko 6,30etatik aurrera.

Anton Garay:

"Txankakuak herria bizirik ¹¹⁾ antendu nahi du"

1991. urtean Elgoibarko merkatari batzuk Eibarko ATCren (Asistencia Tecnica al Comercio) laguntzaz elkartu ziren eta zenbait bilera egin zituzten merkatarien gaia nola zegoen eta zer egin zitekeen ikusteko. Bilera horietatik talde txiki batek beste

herrietako esperientziak nahi izan zituen ezagutu. Hortik, 1992an Txankakua sortu zen. Haseran 50 bazkide inguru baziren, gaur egun 76 merkatari osatzen dute aipatu elkarteak. Maiatzetik hona Anton Garay da elkarteko lehendakaria.

- Zergatik sortu zen Txankakua?

Orain arte merkatari bakoitza berera mugatzen zen eta ez zuen inolako harremanik gainontzeko merkatariekin. Baina, hipermerkatuak eta supermerkatuak sortzen hasi ziren. Horren aurrean ikusi zen jendeak bazuela denda txikiez gain bestelako aukera handiagoak ere erosketak egiteko. Nola-bait, merkatariok konturatu ginen etsaia ez zegoela herrian bertan, kanpotik zetorrela baizik.

- Horregatik elkartu zineten.

- Gure asmoa kanpotik datorren konpetentziaren aurrean gure jokatzeko erak zehaztea eta batera aritzea da. Eurek duten abantaila bat da produktuak kantitate handitan erosten dituztela. Hori dela eta merkeago saltzen dute. Guk, orain arte bakoitzak bere aldetik erosten genuen dena eta, noski, garestiago irteten zitzaigun, bai guri, bai eta erosleei ere. Horregatik, elkarteak egoterakoan, denon artean eros ditzakegu produktuak, kantitate handitan eta merkeago.

- Ikastaroak ere antolatu dituzue.

- Bai. Zentru komer-



"Gure nahai herriko margolarien koadroak dendetan erakustea da".

tzial handietan profesionalak daude. Badituzte gestio zuzendariak, marketing zuzendariak, psikologoak, merkatu ikertzaileak... Elkarteari esker, ikastaro ezherdinak antolatuz posible da gu hobeto preparamentea, informatzea eta produktu hobea saltzea. Hilaren 16an, adibidez, Eibarren hitzaldi garrantzitsu bat egongo da atera berri den hiri mailako alogerei buruzko legeari buruz Ley de Arrendamientos Urbanos).

- Komertzio gehiegi al daude?

Diru gutxiago dago eta diru hori jasotzeko

komertzio gehiago. Azken boladan bankuak ere hasi dira produktuak saltzen, telebistan ere bai... Tarta berdina da baina gero eta gehiago gara bertatik jan behar dugunak.

- Espezializazioa izan al daiteke irtenbide bat?

- Argi dago gauza berriak sartzen joan behar dugula, modernizatzen, informatika sartzen eta produktua herria ere ahalik eta hariante ezberdinenetan eskaintzen. Adibidez bakailoa freskua saltzeaz gain baita Iehorra ere, saltsan edo piperrarekin... Etekin atera behar zaie produktu guztiei.

- Herriatarrei begira ere antolatu izan dituzue ekintzarik.

Orain arte boletoen zozketen kanpainak egin izan ditugu udaberrian, udan eta Gabonetan. Orain, gure asmoa kultura, euskara edo kirol mailan herriarrek izan ditzaketen ideia eta proiektuak lagundu eta bultzatzea da. Mementuz kirol taldeak bakarrik etorri zaizkigu. Gabonetako kuadrila arteko txapeketan ere gauza ezberdin bat egin nahi zela eta argazki lehiaketa bat antolatu dugu. Kultur ekimenak ere bultzatu nahi ditugu, horregatik hementik luzatzen dugu gure deia, nahi duenak gugana jo dezan. Besteak beste, asmoa daukagu hala nahi duten margolarien koadroak komertzioetan jartzeko, jendeak ikusi ditzan. Txankakua ere egon hai duen edonork 10 66 66 telefonora del dezake Nerearengatik galdetuz edota Elgoibarko 189 posta kutxatilara idatziz.

- Herrian mugimendua sortu nahi duzue.

- Bai. Larunhata iritsi eta Mamutera joan beharrean jendeak herrian bertan ere aukerak badaudela jakin behar du, herria bizi-rik mantendu behar da.

dip


BARREN

O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 8. GEHIGARRIA



istoria, geografia edo matematikak ezezik, natur zientziak ere ikasten dituzte gaur egungo gaztetxoek. Teoriak bere garrantzia izan arren, argi dago ororen gainetik praktika dela benetan eragina duena, gauzak ikusiz, elementu ezberdinekin nahasteak eginez, gatzak nola lor daitekeen esperimentatuz... Gauza guzti horiek eginez ikasten dituzte umeez natur zientziak, fisika edota kimika bera ere. Herri Eskolako laborategira joan gara hil honetan. Argazkiko hamar neska-mutilak zein baino zein umoretsuago ikus ditzakegu. Ez dakigu laborategiko hodi eta mikroskopioekin lanean gustura pasatzen dutelako edota BARRENen agertzeak ilusioa egiten dielako. Guk behintzat apostua bigarren arrazoziaren alde egingo dugu.

IRRI - MIRRIKA



Jakitunen eskutik

Deklinaziotik komunikaziora

Nire semea in_gelese ikasten ari da. Gaur 30 hutsune bete ditu eta zazpi aditz deklinatu, zein baino zein hobetol Hara hona X la_gunak beste bati e_giten dion komentarroa. Z la_gunak, berriz, honela esaten dio, "Nire semeak, in_geleseko klasean "beltz-beltzeri" buruzko debate batean hartu du parte, in_gefesez hitze_ginez, noskil".

Nola iritsi daiteke X la_guna Z izatera?

Gaur e_gun, zorionez, umeak _gero eta lehenag_o, hiru urtekin _gutxi _gora behera, hasten dira hizkuntzak ikasten. Zorionez diot, izan ere _gauza jakina baita burmuinean hizkuntzak barneratzeko dauka_gun mekanismoari esker (LAD) askoz erraza_goa dela hain adin _gaztetan hizkuntzak jaso eta barneratzea. Zoritxarrez, sei urtetik aurrera LAD mekanismoa _gutxitzen joaten da, desa_gertu arte. Hau dela eta, zenbat eta lehenag_o hasi ikasten, hobe.

Artikulu honetan ume eta _gazteei buruz soilik hitze_gin_go dut horre_gatik, IKASI hitza ez erabiltzen ahale_ginduko naiz hitz hau oso lotua eta nahasia baita_go ESTUDIATUekin. Adin hauetan erabili daitekeen hitzik e_gokiena JABETZA da, hizkuntza batez jabetzea. Horretarako beharrezkoa da _gefan estimulu-erantzun _giro bat sortzea. Haurrok komunikatzeko beharra sentitu behar du eta irakasleak e_goera errealak sortu behar ditu umearen arreta bideratuz. Honela, ereduak imitazio, _gauza eta e_goera berriak ikusiz, esperientzien bidez, ipuin eta jolas didaktikoen bidez, haurra hizkuntzaz jabetuz

doa. Ama hizkuntzaz jabetzen _garen era berean, hain zuzen,

Prozesua aldatu e_giten da ikasleak bere hizkuntzak arau eta e_gitura _gramatikalak dituela konturatzen denean, konsziente denean (12/13 urte).


Gramatikaren prozesua ozkartzea, metalen_gk.ara erabiltzea {aditz denborak...} eta hizkuntza berria azaltzeko euskara/_gcrztelera erabiltzea oso arrisku sua da. Izan ere, ikasleak itzulpen soilak e_gitera jotzer du eta horrek arazoak sortzen ditu. Ikasleak hizkuntza berrian hitze_giten (?) duen bitartean euskaraz/_gaz ele-raz pentsatzen du. Hori dela eta, _gerta daiteke harzarleak jctso duen mezuaren eta i_gorleak esan nahi zur naren artean zerikusirik ez e_gotea.

Zoritxarrez toki askofan _gramatika irakastera mu_gatzen dira, ulermena idazketa eta irakurketara mu_gatuz. Estatistiken arabera, herrialde honek Europako mailarik bajuena dauka hitze_giteari da_gokiom an. Hori bai, denok daki_gu aditz irre_gula rak konju_gatzen. Hizkuntza berrian PENr AT-ZERA iritsi behar da.

Irakasleak hitze_giteko errezasuna lortu behar du ikaslearen_gandik, bat batean hitze_gin dezan ahale_gidu behar da, hiizak itzuli gabe, eta hori hizkuntza gelan bertan giro natural bat sortuz eta erabiliz lortzen da.

Atzerrira bidaiak egitea oinarrizkoa da hizkuntza ulertzeko ezezik baita pertsonalki aberasteko ere, baina hori beste kontu bat da...

(Erredakzioan itzu[fa])



MARK J. STUTTER
INGELES IRAKASLEA

Ze iritzi daukazu ei buruz?



1V€4.e 44e/2. 4/m0*(v4 cop.enam.W' 1U4a. Fa*,em,e4, //aU

€4-' ~ j -" lvt44, 7J3r) tv.44,o lag.o:

JOSU DURAN. 10 urte



JoJea, e/h.14.,~11.e.livo 4h.e1, 14 Euuk Zuie

vutea, 1441a14,u1'

JULEN ZABALA. 12 urte.



'Do€G.e4h.a/K %4A,j,a1/ 4. t6116b ta, fltaKt.

4a- L4 i' /te/i.taa. g.viay/ha 1 4'' •"

IRATXE GARATE. 8 urte



Jon Zublaurre

13 urte

/ Txikitan beldurra ematen zidan eta orain ere nahiago dut argitasuna.

2. Beldurrezko pelikulei, gero amets txarrak izalen ditu.
3. Bai. Neska rubia batekin. Begi urdinak izango ditu. Nik dirua irabaziko dot eta emaztia etxian egongo da.
4. Futbolian jolasten gera edo kalia ibili ixana batzuetan aspertu itxen gera.
5. Osasuna eta etxe haundi bat eskatuko nituzke.
6. Nahiko formala naiz. Bueno solfeoko andereñuak zeozer esaten digunian kontestau itxen diogu arrazoirik ez badaka.
7. Jarroi bat.
8. Hartzen dutenei nola bizi dian galdetuko nien eta nere izena eta nungua naizen jarriko naban, gero eurak neri erantzuteko.

Galde debaide

1. Zer esaten dizu iluntasunak?
2. Zeri diozu beldurra?
3. Ezkonduko al zara?
4. Zein jolas duzu gustukoen?
5. Zer egingo zenuke barita majiko batekin?
5. Zure azken trastada?
7. Zer egingo zenuke plastilinarekin?
8. Zer mezu idatziko zenuke botilan sartu eta itsasora botatzeko?



Marta Concle


7 urte

1. Txarra da, gizon bat etortzen da eta etxea erretzen du. Lotarako atia zahalik eukitzen dot, pasilloko argia piztuta.
2. Mamu berdeei.
3. Ez, beti aitatxokin eta amatxokin bizitzia nahi dot.
4. Soka saltoa, kartak edo dominoa.
5. Sagar gorri asko, asko gustatzen zaizkit.
6. Ni formala naiz ze bestela errekererik gabe uzten digu irakasleak.
7. Etxe hori bat teilatu gorriarekin eta atea eta leiha urdinekin.
8. "Itsasoa polita da". Itsasoa asko gustatzen zait, olatuetan sartzen naiz eta ur azpian bolteretia ematen dot.

Nor

41-11 • •• meelbe 111

SILVIO LOLES 170 11 urte



) "4

"Ipuinak egiten ditu. Politak dira bere ipuinak."

JOIS IRIONDO 7 urte



"Torero bat da eta oso ona da toreatzen. Neskak beti dabilta Jesulinen atzetik."

ELISALIE ALVARO 7 J urte



"Jesulin de Ubrique torero bat da bere etxean zezanak dituelako."

EVA M. ACIÑA 11 urte



"Toreatzaile gazte eta famatua da. Andreentzako korrida bat egin ondoren fama gehiago hartu du."

LAULA AGELLEGOMEZEOLIA 7 urte



"Torero bat da eta neska guztiak bere atzetik doaz erropak botatzen."

COLKA ZAIÑAILA 11 urte



"Toreatzaile bat da eta horrelako txorakeriak egiten iarraitu behar du asko irabazi arte."



Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Nor da eigolharian hau?



2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?



ANDER ALONSOTEGI

13 urte

"Emakunden sartuko nintzake nesken alde lan egiteko. Jolasak ere diferentziak izango zian, muñeekin ibiliko nitzan, mutilekin ligatuko naban... Hala ere usten dot lotsatixaua izango nitzala. Igual etxian ere lan gehixao egin biharko nitxun, kozinatu eta holakuak baina soldaduizara behintzat ez nitzan jungo."

VERONICA AGEA
10 urte


"Neskak hobeto trataluko nitxuzke, ez nieke hurlarik egingo eta ez nitzan eurekin sartuko eta jolasetan ere ez nitzan ibiliko molestutzen. Bentaja izango zan ze etxera jun eta sofan etzango nitzan, trankil trankil, ezer egin gabe. Zainduko naban jazkeria eta itxuria, inportantia da eta horrela gehixao ligatuko naban."



3. Asmakizunak:

- Annak bi ditu aitak ere bai, semeak bat eta alabak hiru. Zer daaaa2
- Beltz, txiki eta langife finak geldi egonezinak, bati dabilta batera eta bestera baina ezin hautsik atera. Zer da?
- Gogaikarri samarra da eta txiki txikia; zor, ia ez dit ezer zor, baina naizenez oso garbia ez dut laguntzat nahi. Zer den, esan dizut gutzia. Zer da?

4. Osa ezazu marrazkia eredua jarraituz?



Juan Carlos Garcia

Butaneroa



• **Noiztik eta noiz arte butanero?**

Orain dela 10 urte hasi nintzen eta auskalo noiz arte jarraituko duclan.

• **Forman mantentzeko?**

Gorputza ohitu egiten da. Hasi nintzenean 35 bonbona eraman nituen eta erdi hilda heldu nintzen etxera. Gaur egun, ordea, 200-300 bonbona bana ditzaket arazorik gabe.

• **Zenbat kilo bonbonako? 1 25 kilo.**

• **Hamar urte hauetan indarra irabazi duzu, baina osasuna?**

Orain arte ez dut inolako arazo fisikorik eduki, baina butanerook gehien izaten dugun gaitza ernia da.

• **Goizean esnatzean egiten duzun lehen gauza?**

Gehienetan leihoa ireki eta ea zein eguraldi egiten duen begiratzten dut. Eguraldiaren arabera lana gogorragoa izan baitaiteke.

• **Banaketarako kale guztiak berdinak al dira? i Ez.** Hoberena San Roke da eta txarrena Santa Ana kalea, bertan igogailu gutxi baitago.

• **Zein urtaro duzu gogokoen?** Lanerako negua, izerdi gutxiago botatzen dut eta errazagoa da kargatua ibiltzea.

• **Zer da egunkaritik irakurtzen duzun lehen gauza?**

I Normalean atzeko aldean agertzen diren bitxikeria eta kotileoak.

• **Zer deritzozu "el hijo del butanero" esaerari?**

Tontakeria bat dela eta beste esaera zahar batek dioen bezala, "batzuk fama eta beste batzuk...".

• **Laranja koloreko ametsik?**

/ Ez, falta zitzaidan bakarra. Laranja koloreak arriskua adierazten du.

• **Arriskutsua al da butanero izatea? 1 Bai,** istripu asko egon daiteke, adibidez hanka gainera bonbona jaustea.

• **Asteburua atsedena hartzeko?**

/ Ez, inola ere ez. Aste burua familiarekin egoteko aprobetxatzen dut.

• **Zenbat eta pisu altuagora igo bonbona, orduan eta propina handiagoa?**

III Ez, dauka zerikusirik. Propina pertsonaren arabera izaten da. Batzuetan lehenengo pisukuak besteek baino gehiago ematen dute.

• **Eta zuk eskertzen al dituzu propinak?**

Bai, noski. Detaile polita da.

EDURNE KORTA

SASKI PUNTAKO TXAPELKETA GERNIKAIIO JAI ALAI PILOTALEKUTIK

DOINUA:

Xarmantgarria zera


Saski Punta Txapelketa azaroan seian bi bikote aitu ziren guztizko sasoiari laurak saiatu dira ahalegin gaztitan nor gelditu irabazle hemen azkenian.

Rekalde ta Goitia gogor ziren jardun suerterikan eza izan zuten lagun pelotazo batzuek oker zitzaien jun Jauregi ta Aranburu azkenik txapeldun.

Jauregi ta Aranburu azken txapeldunak Recalde ta Goitia ere ezdaude bigunak erakutsi digute jokaldi txukunak bapoi saiatu zerate danoi zorionak.



DANIEL LEGORBURU



t-enar-to

Barruko erropak

Umeentzako erropak

San Frantzisko 10, Tel.: 74 2612

usua

KAFETEGIA




Santa Ana, 6. Tel. 74 25 20

Santa Klara komentuko musika tresnak (11)

118 XVIII. mendearen azken hamarkadan Frantziako Iraultzak Europa astindu zuen. Armada iraultzaileak, Luis XVI.a Frantziako errege absolutista zena gillotinatua ondoren, Europako potentzien aurkako gudori ekin zion. 1794ko abuztuan Gipuzkoan sartu ziren frantsesak eta Elgoibarko Santa Klarako monjek gurdietan ihes egin zuten Durangoko klaratarren monastegira. Abuztuaren 29an Arabako Villarrealera alde egin zuten bertan dirua banatuz eta talde txikitan sakabanatuz.

- Abatesa, kaperaua, sei monja eta neskame bat Villarrealen eta Forondan egon ziren 1794ko uztailaren 3tik 1795eko maiatzaren 17ra arte. Sor Agustina Ignacia San Nikolasana eta Inda, organista Maturana herrian hilobiratu zuten, 45 urte "profesa" egin zituen egunean.
- Monjak kanpoan egon ziren bitartean, tropek hartu zuten monastegia, kalte material handiak eginez. Musika instrumentuek ere jasan zituzten kalteak eta horien artean organoak eta manikordioak.

3Manikordioa XV. mendean erabiltzen hasi zen tresna da, klabikordioaren familiakoa. Kutxa angelu zuzen itxura omen zaukan, mahai baten gainean ipintzen zen eta organoek duten antzeko teklatura zuen.




Manikordioaren konponketak 28 erreal eta 28 marabediko kostua izan zuen.

Organoari buruzko bi aipamen agertzen dira dokumentuetan. Batetik, auspoen sokak berritzeko 6 vara (5 metro) inguru soka behar izan ziren horretarako, 16 erreal eta 4 marabedi gastatuz. Bestetik, badirudi organua "trastornatua" zegoela eta egin ziren konponketen xehetasunak aipatzen dira.

- Organo joleak Santiago eta Francisco Herdozia aita semeak izan ziren. Hauek, organua aztertu zuten eta erregistro batzuk hartzeko, berrikuntzak egiteko eta klarin berri bat muntatzeko konpromezua hartu zuten honela, "bajor txikia erreformatu eta teklatur berria eginez.
- Organo egileek lan hau sei hilabetetan egingo zutela esan zuten sor Juana Ramona de Jesus Nazareno eta Maguna abatesa elgoibartarraren aurrean. Lanaren truke 5.000 erreal kobratu zituzten.

PELLO ARRIETA

Jose Inazio Sarasua Etxaniz (0920-1981)



Nuarben (Azpeiti) jaio zen 1920ko martxoaren 29an.

13 urterekin Mendaron okin lanetan hasi zen Intxustitarren etxean. Beranduago ibilbide luzeko arrain kamioi bateko gidari izan zen.

Espainiako Itzuliko karabanan parte hartu zuen bost bider Sigmako "fantasma"rekin.

Baliahide urriak zirela eta. Sigmak enpresarentzako auto bat egokitu zuen anbulantzia modura. Zuzendaritzak anbulantzia erabiltzeko aukera eman zien herritarrei.

Txoferra izanik, sarritan irten behar izan zuen zegoen tokitik, larrialdiren bat zela eta.

Herrian oso estimatua izan zen herritarren alde egin zuen lanagatik. Mugerza MemoriaIa antolatzen lagundu zien Ego-Tokikoei.

Lourdesera peregrinazioan hainbat gaixori ere lagundu zien.

Biar-Danako hazkide zen.


Pilota zaletua ezezik, herri kirolak ere gogoko zituen.

1981eko otsailaren 1ean hil zen.

TX1RiBOGa Taberna

GOSARIAK, PINTXOAK
ETA OTARTEKOAK


Plaza merkatua 23-24



tAbdē

et7e4yit

 Giza eskubideen Plaza



EGONDO, s.a.i.

 METALEZKO ERAIKUNTZAK
 KALDERERIA LANAK OROKORREAN

Deba kalea 4-7v 74 34 08-04 FAX 74 34 08

A

IV. Xake Txapelketaren aurkezpen ofiziala

Kultur Etxeko hitzaldi gelan egingo da Nazioarteko IV. Xake

Txapelketaren aurkezpen ofiziala hil honen 16an, asteazkena, eguerdiko 1,15etan hasiko den ekitaldian. Iaz baino maila altuagoa izango du txapelketak, 10eko kategoria izango du hain zuzen ere. Txapelketa hilaren 20an hasiko da eta astebetetz luzatuko da. Partidak, iaz bezala, Kultur Etxean jokatuko dira.

Karakatera igoera

Morkaiko Mendizale Elkartek eta Urgazi Triathloi Taldeak Karakatera igoera antolatu dute hilaren 19rako, zapatua. Bakoitzak nahi duen bezala, oinez zein korrika, egin ahal izango du Udaletxetik Karakateko buzoirainoko bidea. Ibilbidea libre izango da, bakoitzak nahi duen bidea hartu ahal izango duelarik. Dena den, antolakuntzak bide bat proposatuko du, eta zenbait bidezior okasiorako garbituko ditu. Antolatzaileek esan digutenez, jendea aspalditxotik dabil entrenatzen Pedro Mantxillaren 38 minutu eta 35 segunduko errekor ofiziala gainditzeko. Izan ere, errekor hau askotan gainditu da baina ez da inoiz modu ofizialean neurtu. Oraingoan kronometratu egingo dira denborak eta bizkorrenak 33 minutu inguruan ibiliko dira ziurrenez. Irteera larunbatean, hilak 19. goizeko 10,30etan izango da Plaza Handian. Parte hartzaileak bost minutu lehenago agertu beharko dira irteera lekuan.



Mari Cruz Ra al:

"Espainiako txapeldun eta munduko 3.a izan naiz"

1 Nola hasi zinen dardoetan jokatzen? - Zumalan taberna geneukan eta dardoen makina jarri genuen. Niri ez zitzaidan gustatzen, baina senarrak animatu eta irakatsi dit, eta beragatik jarraitu dut. 91n Donostian Espainiako txapelketa antolatu zen lehendabiziko aldiz.

1 Parte hartu zenuten? - Bai, nik eta senarrak. Bostgarren geratu nintzen eta nere senarra Candi, zortzigarren. Chicagoko mundialean ere egon nintzen eta ez nuen ezer lortu. Maila oso altua egon ohi da, eta partehartzaileak 6000 izaten dira.

92an, Gipuzkoako txapelketako lehen bostak, Geronako Espainiko Txapelketara joan ginen. Nesken bi modalidadeetan Espainiako txapeldun izan nintzen. Handik Chicagoko Munduko txapelketara, eta han hirugarren geratu nintzen. Bikoteka eta hirunaka 17 eta 24 postuen artean geratu ginen. Iaz ez zen Gipuzkoako txapelketarik izan eta ez ginen Espainiakorako sailkatu.

1 Aurten? - Gipuzkoako txapelketa ez dugu jokatu oraindik. 95ean Donostian izango da berriz Espainiko txapelketa eta harako sailkatzeko txapelketa egon beharko ginateke jokatzen. Austriako Europako txapelketan ere egon gara aurten eta 3. geratu naiz.



1 Makinan jokatzen duzue normalean? Bai. Makinaz gain, hormako diana klasikoak daude, "altzairuzko puntadunak" deitzen zaio.

1 Normalki gizonen aurka jokatzen duzu, ez? Bai, neska gutxi gaudenez ez da neskentzako txapelketarik antolatzen. Gizonen aurka jokatzean gehiago ikasten dut baina askotan desanimatu egiten naiz. Dena den, hortik goazenean ez dute gure aurka jokatzerik nahi izaten, izen bat daukagu eta.

1 Zer da txarrena? - Nerbioak. Dena den, ni nahiko lasaia naiz.

1 Federaziorik baduzue? Espainian bai baina Euskal Herrian ez. Horren atzetik gabilta. Arazoa da makinaren distribuzioaren eskulibragoela eta Donostiako banatzailea bakarrik dagoela baimenduta txapelketa ofizialak antolatzeko. Berak ez badu antolatzen gure kontu ibili

behar gara eta szastuak poltsikotik ordaindu. Laguntza behar duszu.

1 Zein da hobea, zeu ala senarra?

Senarra, askozaz.

1 Eta berak zer dio? Harro dagoela lortu dudanagatik.

• **Adina: 27**
• **Zaletasunak: Irakurketa eta dardoak, noski**
• **Maniarik? Manga motzean jokatzen dut beti, eta ur asko edaten dut.**



DIAMIR
MENDIRAKO EKIPAMENDU TEKNIKOA
K/ Harruriaga 8, BERGARA Tel: 76 08 84

Denda berri bat zabaldu dugu.

EZ EZAZU ITXUAN EROSI!

Lagaiguzu aholkuak ematen.

JON LAZKANOK emango dizkizu aholkuak.

UCUTICUL PAIS

Enpanada Baserriko ogia
51 Ecenarro, 1 A 74 339



FUTBITO TXAPELKETA MARTXAN DAGO JADA. AURTEN, URASANDIN PARTE HARTZEN DUTEN TALDEAK AURKEZTUKO DIZKIZU BARRENEK ZENBAIT ASTETAN ZEHAR. ETA HASTEKO, NOLA EZ, IAZ MERITU GEHIEN LORTU ZUEN TALDEA: TXAPELDUNA.



EU3IIPICER141E1

- > IZENA: Mimox
- > ZERGATIK? Izen bereko dendaren diru laguntza jaso zutelako, kamisetak e.a. ordaintzeko.
- > SORRERA: Duela bost urte hasi ziren txapelketan jokatzeko. Mimox izenarekin orain dela hiru urte hasi ziren jokatzeko.
- > AURTENGO ASMOAK: Ahal bada iaz bezala txapelkunak izatea, "baina oso zaila da",
- > B/B ADINA: 20 urte -).
- > LORPENAK: Ligako txapelkunak 93an, gol gutxien iaso zuen taldea 93an, talderik goleatzaileena 92an eta Kopako txapelkunak 91 n.

JOKALARIAK: Zutik, ezkerretik eskumara: Aitor Elizburu, Fernando Mancebo, Aciofio Dobarro, Julian Gonzalez eta Joseba Galarraga.
Makurtuta: Luis Carlos Urbiola "Txiki", Gorka Muñoz eta Carlos Garcia.

A Taldea

1. G. GARCIA	8	18
2. KING-KONG	7	10
3. SAN ROKETARRAK	6	8
4. D. KALIMOTXO	6	6
5. D.T. VETERANS	4	1
6. RUA	4	1
7. LA MAXIA	4	-6
8. KOSAKOS	3	3
9. AMETSA	2	2
10. HARITZA	2	-2
11. AIDAVAS	2	-16
12. REPLASTISA	0	-9
13. ORAIKO CAFE	0	-16

G 14¹ ILAK

GOLEGILERIK ONENA

- Gonzalez (Karkis) 8 gol
- Mancebo (Mimox) 8 gol
- Dobarro (Mimox) 7 gol
- Toledano (Karkis) 6 gol
- Gonzalez (Mimox) 6 gol

GOL GUTXIEN JASO DUEN ATEZAINA

- Iglesias (G. Garcia) 0 gol
- Boo (Gruas Pana) 3 gol
- Bellota (Pedruscos) 5 gol
- Betelu (Sporting) 5 gol
- Diaz (King Kong) 5 gol

B Taldea

1. Mimox	8	20
2. SPORTING	8	10
3. PEDRUSCOS	7	16
4. KARKIS	6	19
5. GRUAS PANA	5	8
6. H. VERBOTEN	3	-1
7. LUCKY LUKE	3	-1
8. UNIV. CHILE	2	-3
9. TROPIKO	2	-4
10. REBEL URBI	2	-9
11. BERROGEI DURO	2	-19
12. FOTERO	0	-6
13. RESTO MUNDO	0	-30




FUTBOLA Mintxetan **Larunbata 12**
15,30: C. D. Elgoibar - Beti Ona (Jubenilak)
17,15: C. D. Elgoibar - S. D. Eibar (2. Errejonala)
12,00: Urki - Bergara (Jubenilak)
16,30: C. D. - Bergara (Neskak)
ESKUBALOIA Kiroldegian **Larunbata 12**
16,00: Elgoihar - Bidebieta (Jubenilak)
17,30: Elgoihar Leizaran K. E. (Kadeteak)
Igandea 13
12,00: Txankakua Elgoibar - Aierru
FUTBITOA Urasandin **Igandea 13**
10,00: Aldavas - D.T. Veterans D. Kalimotxo Kosakos
11,00: Haritza Oraiko Cafe La Maxia Ametsa
12,00: Replastisa San Rokatamtk Rua - G. Garcia




ESKUBALOIA
 Elgoibar 29 - Bidebieta 4 (Kadete neskek)
 Bidebieta 20 - Elgoibar 25 (Kadete mutilak)
 Elgoibar 35 - Bizkor 14 (Juhenil mutilak)
 Usurhil 24 Elgoibar I I(Senior neskek)
FUTBOLA
 Haundi - Aloña Mendi 1
 Ondarru 3 Elgoibar 1 (Jubenilak)
 Aloña Mendi 2- Elgoihar 1 (Neskak)
 Sto. Tomas Lizeoa 2- Elgoihar 2 (Infantilak)
 Elgoibar 9- Aloña Mendi 1 (Kadeteak)
FUTBITOA
 H. Verboten 2- U. de Chile 1 R. del Mundo 2 Mimox 15
 Rehel Urbi 0- Sporting 5 Berrogei duro 2 Pedruscos 5
 Tropiko () - Karkis 4 Gruas Pana 2- Lucky Luke 1

ZAHER S.A.:

Anaiarteko empresa



Zabala anaiek 1970. urtean Ermuaranbiden sortu zuten tailerra. Lauak bildu aurretik, bik bazeukaten lanpostua. Zeukatena laga eta lauek bat egin zuten Zaher sortzeko. Trokelak egiten hasi ziren, eta beranduago mekanizatuei heldu zieten.



• Lantegiko makina bat. Argazki txikian, fresadarentzat egiten duten piezetariko bat.

Ermuaranbideko lokaletik gaurregun dauden lekura, Olasoko industrialdera hain zuzen, joatea erabaki zuten orain hogeitau urte. Andikanokoen lurrak izanik, erraztasunak izan zituzten hura erosteko, eta hartara, Olason lantegi berria eraikitzeko erabakia hartu zuten. Bezeroen exigentziak zirela eta, eskaintzari aurre egiteko, lantegia handitzen joan zen, 17 langile izatera heldu direlarik. Espazioari dagokionean ere, tailerrak asko irabazi zuen aldaketarekin. Ermuaranbideko tailerrak 200 m² zituen, eta Olasokoa, berriz, 1250 m².

Zaher-en erreminta makinaren alorrean egiten dute lan. Herriko lantegi ezberdinentzat egin izan dute lan: lehenengo "Forjas de Elgoibar" entzat, gero "Agme" entzat hasi ziren eta garai onak ezagutu zituzten. Agmeren ondoren Kondiarenkin hasi ziren eta hauekin jarraitu dute gaur arte. Kondiaz aparte, beste hiruzpalau lantegirentzat ere egiten dute lan. Azken boladan Elgoibartik kanpoko enpresentzat dihardute lanean, beti ere Euskal Herrian bertan. Jesus Mari Zabala gerenteak adierazi digunez, esportazioak apenas egiten dituzten. Urteko fakturazioaren %5a besterik ez dira esportazioak,

"General Motors enpresari eta gutxi batzuei esportatzen diegu".

Aitaren onespenez gabe

Jesus Mari Zabalak zera kontatu digu anekdota moduan: Zaher enpresaren inguruan lau anaiak batzea ez zen zabalatarren aitaren gogoko izan. Bi anaiek lanpostua laga eta hutsetik hasia ez zuten aitak begi onez ikusi. Urteen poderioz poliki poliki lantegiak aurrera

egin zuela ikusteak, poz izugarria eman omen zion aitari.

Bezeroen eskaizunei egokitu-tako makina bereziak egiteko talde teknikorik ez izatean, kanpokoei eman behar izaten diete lan hau. Zaher-en sortutako ideiatik abiatuta, "ingenierias" deitzen diren enpresek burutu ohi dute proiektuen alde teknikoa. Fabrikatzen dituzten makina bereziak piezak mekanizatzeako makinak izaten dira, muntaiarako eta transeferentzietarako makinak normalean.

Garai onak eta ez hain onak pasa ondoren, gaurregun, torreta-fresadoreen akzesorioak fabrikatzen duen enpresa bakarra da Zaher. Elgoibarren ezezik, Euskal Herrian eta Espainian ere beraiek bakarrik aritzen dira akzesorioen fabrikazioan. Baliabide materialei ezezik, berebiziko garrantzia ematen die Jesus Mari Zabalak Zaher-en lan egiten duten langileei ere. "Tailerrean beraiek dute garrantzia haundiena, beraiek dira lantegia aurrera ateratzen dutenak eta".

ZAHER, s. a.

ENPREAREN IFITXA

- X IZENA: ZAHER, S.A.
- X SORRERA URTEA: 1970
- X SORTZAILEAK: Zabala anaiek
- X GERENTEA : Jesus M. Zabala
- X LANGILE KOPURUA: 17
- X IHARDUERA NAGUSIA: Makina bereziak, torreta lresadorarako akzesorioak.
- X 2. MAILAKO IHARDUERA: Mekanizatuak.
- at URTEKO FAKTURAZIOA: 100 milioi.
- at ESPORTAZIOAK %tan: % 5a
- X HELBIDEA: Olasope Kalea 16. Olasoko inductrialdea.

TEL / FAXA: 74 05 15 / 74 34 16

Sukaldaritza bejetarianoa *modan* ote?

Sukaldaritza bejetarianoa edo naturista gero eta "etxeoagoa" ari da bihurtzen Euskai Herriko sukalde tradizionaletan. Honen adierazgarri da han hemenka, sukaldaritza mota honi buruzko ikastaroak antolatzen direla. Eta ez antolatu bakarrik, jendeak parte hartu ere bai. Aste honetan bertan, Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak antolatutako sukaldaritza bejetarianoari buruzko ikastaroa hasi da.

Hi aseran 16 pertsonako talde bakarra osatzeko asmoa bazegoen ere, prebisioak hautsi eta 32 pertsona apuntatu zirela ikustean bi txanda antolatu behar izan dituzte. Antza denez, atakasta erabatekoa izan da. Modak zerikusirik izango ote du?

Iker Iriondo sukaldari plaentxiarra da ikastaroaren arduraduna. Honen ustetan, moda bat baino gehiago, probatzea da kontua. "Orain arte ezezaguna izan den sukaldaritza mota hau hedatzen ari da. Nor bere eskuez egindako jakiak probatu eta gorputzari on egiten diola ikustean, jendea zaletu egiten da, ez da moda kontua".



Ikastaroaren parterik politena, prestatutakoa dastatzea.

Iker Iriondo sukaldari izateaz gain, bejetarianoa ere bada. Bergarako "Lasa" jatetxean, Zarautzeko "Aitanetxe"n, jangela kolektiboetan eta ospitaletan egin izan du lan. "Sukaldaritza bejetarianoa gustuko dut eta gainera posibiliade asko eskaintzen ditu, konbinazioak mila izan daitezke". Lehendabiziko klaseetan Ikerrek demostrazioak egin eta azalpenak ematen ditu, eta hurrengoetan taldeak antolatzen dira ikasleak sukaldean aritzeko.

Sukaldaritza bejetarioan produktu biologikoen erabilera bultzatzen da. "Ongarri kimikorik gabe hazitako ber-

durak, azukre eta irin zuriaren ordeaz azukre eta irin beltza erabiltzea hohea da, azalean propietade asko dago eta. Nire ustez bejetarianoa naturalagoa da, luzera begira osasungarriagoa".

Dieta edo elikadura mota bat jarraitzea da bejetariano izatea. "Oke-larik eta arrainik ez jatea, edo ahal den gutxien jatea da sukaldaritza bejetarianoaren ezaugarri nagusienetakoa". Sukaldaritza bejetarianoa suabeagoa da Ikerren ustez, bitamina gehiago hartzen dira, ez dira oso elaboratuta dauden janariak eta ez dira beste janari batzuek bezain agresiboak.

At«Pe
TABERNA

Amunarteko;
Lafarietarako leku
naworiosd

San Roke auzoa 5. u. 74 25 95



•Eramateko
OILASKO ERREAK
•Hobe aurrez
eskatuz ero

ILEAPAINDEGIA

FADEK
SOLARIUM

Errosario Kaba, 35 behe
74 26 92 Elgoibar

Antzerkia

Elgoibarko **EKEKEI ANTZERK1 TAL-DEAK** bere azken lana, "Hiltegia" antzertuko du Deban. Emanaldia gaur, ostirala, izango da, gaueko hamarrok eta laurdenetan.

Se

Ikasleen arteko zerbitzu alemanak **1995 URTEKO UDARAKO IKASTAROAK** antolatu ditu. 19 eta 32 urte bitarteko ikasleak behar dute izan eta, gutxienez, bi ikasturte gaindituak izateaz gain alemana menperatu behar dute. 1250 markotako beka emago da eta beste 250 garraiorako. Ikastaroek 3/4 asteko iraupena izango dute. Izen emateko azken eguna azaroaren 25a da.

16-414'44444

Eibor Hiria Irrati zaletuen Elkortekak, **IV. IRRATI IKASTAROA** antolatu du. Ikastaro honen bidez, irrati zaletu operadorearen diploma eskuratzen da. Azaroaren 17an emango zaio hasera eta 3.000 ptako kostua dauka, 1.500 pta bazkideentzat.

.deltialeta4

Pasai Donibaneko Gazte taldeak **VIII. PASAIA GAZTERIA 94 KOMIKILEHIAKETA** antolatu du, Udaltzeko Gazteri Sailarekin. Gipuzkoako gazteek parte har dezakete, 15 eta 25 urte bitartekoek. Gaia eta teknika libreak dira eta lanak abenduaren 15a baina lehen bidali behar dira. Pasaia Gazterla VIII, Komiki Lehlaketa. Gazte Taldea. Udaletxea, Gaztedia Saila. 20110 Pasai Donibane. Informazio gehiago 52 83 33 telefonora deituz eta Koro Barbaragatik galdetuz.

Elgoibarrera ere badatoz kanpotik ikastera

Maidier Agirrebarrena, Lizartzakoa, Iban Gurrutxaga, Amezketakoa, Alaitz Ibarzabal, Gabiriakoa eta Aloña Agirrezabal, Alegikoa. 19 urte dituzte eta IMHn daude pre-modulua egiten. Aste osoa Elgoibarren pasatzen dute, San Pedro

kalean alokatu duten etxebizitza batean, "libertade gehiago duzulako, esperientzia berria delako eta merkeago ateratzen zaigulako". Bertan, euren ikasketak ezezik, bazkaria, garbiketak eta bestelako berriketaldiak ere ematen dituzte elkarrekin.




Laurak datoz herri txikietatik eta Elgoibar ia handia egiten zaie, Ibanen hitzetan, "Elgoibarrek badu bere alde zaharra eta badu bere xarma, poteoko zonaldea...". Hilebete pasa daramate eta mementuz gauzak ondo doaz, Maiderrren esanetan, "haseran dena ahal zuenak egiten zuen baina ikusi genuen asko eskakeatzen ginela eta lista bat egin ginun. Behin bazkaria egin behar da, bestean garbiketa...". Halere, gutxien atsegin dutenaz galdetzean, aho batez erantzuten dute, "fregaua egitea!". Sukaldaritza kontuetan Alaitz omen da finena, Ibanengatik balitz, honezkero bazeuden guztiak beheja jota, "nik lehendik ez nun inolako beharrik izan kozinatzeke. Behin Benidormen izan ginen pisuan eta han ere uda zenez, entsaladak eta tortilak egin eta kitto".

Astelehenan etortzen dira Elgoibarrera, Ibanen kotxean, "nere izerdiekin ateratako kotxea. Udan

lanen egon nintzen ordaintzeko". Pisuaren alokera 40.000 ptakoa da. horri janaria gehitu behar zaio, kotxeko gastuak, butanoa..." Hilero 30.000 pta inguru gastatzen ditugu". Alaitzek dioenez. "Asko ikasi behar dugu, nahiko gogorra da". hala adierazi digu Ibanek. Halere, badute euren hobbyak la. ntzeko tartetxoak. Ibanek kitarra jotzen du, "astebukeratan ezkontza eta antzeko jaietan jotzen dut talde batekin". Aloñaren afizioa soinua da, "baina oso gutxi jotzen dut, orain urte batzuk ikasi nuen eta aspaldian nahiko lagata daukat".

IMHko ikasketak amaitu eta, ahal badute, ikasten jarraitzea da lauren asmoa. Bi urte dituzte oraindik aurretik eta makina bat gauza ikusi eta ikasteko nahikoa denbora. Izan dute "nobatadarik". Aloñak aitortu digunez, "butanoa gastatau zitzaigun behin gaueko hatnarretan!".



Garajeak

GARAJE BAT alokatzen da pista heltzean.
"a" 74 00 70 iñaki

GARAJE BAT dut alokatzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.
"a" 74 39 19

GARAJE ITXI BAT alokatu nahi genuke, bertan kitarra eta haxua jotzeko. Lehenbailehen.
"v" 74 22 70 Igor Gaeuz 9etatik 10etara

GARAJE BAT saltzen da pista heltzean. Marraduna. Prezio onean.
"n" 74 08 79

GARAJE BAT alokatzen da Urasandin
"v" 74 31 07

Salerosketak

Ondo dagoen FRIGORIFIKO BAT saldu nahi nuke.
"12" 74 28 24

"Ingeles" tipoko KOTXE KAPOTA erdiberria, eta MOISES BAT salgai ditut.
"tr" 74 10 42

NINTENDOKO BI ZINTA saltzen ditut: Goonies 11 (3.500 pta) eta Super Mario Bros 3 (4.995 pta).
"v" 74 36 80 Aser Gaeuz deitu

AKORDEOI BAT erosiko nuke. Botoiduna.
"v" 74 00 78
Deitu eguerdian edo gauean

BROTHER TRIKOTOSA hat saltzen dut. Biiarren eskukoa. Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio tuerkea.
"v" 74 18 51

PEUGEOT 405 BAT saltzen dut. Deitu 20,30etatik 22etara.
"tr" 14 30 52 Jose Maria

MENDIKO plastikozko Kollach Viva Soft BOTA BATZUK saltzen ditut. Zenbakia 8 1/2 - 9 (41 -42) 12 04 44
Deitu eguerdian 1,30-2,00

Lana

HAURRAK ZAINDU eta ETXEKO LANAK egiteko prest nago. Aste lehenetik ostiralera.
"73." (94) 682 78 18 Iratxe

TITULUDUN ERIZAIN euskaldunak gaixo edo pertsona nagusiak zainduko lituzke gauez edo egunez, etxean edo ospitalean.
"tr" 74 02 33 Marta. Goizez

MARRAZKETA TEKNIKOKO klaseak ematen dira. COU, UBI, IMI-1, LHI.
"tr" 74 17 60 illaki 74 34 01

PERFUMEAK SALTZEKO jendea behar da. Informazio gehiagorako deitu:
"v" 75 10 07
4etatik aurrera

UNIBERTSITAL IKASKETAK dituen neskak edozein tan egingo luke, 5etatik 9etara.
"a" 74 32 97 Maria Eugenia

HAURRAK ZAINDUKO GENITUZKE, astegunetan arratsaldean eta astebukaeretan egun osoz eta gauez.
"v" 74 09 85 Nuria/Ana

TITULUDUN PELUKERAK lan egingo luke Elgoiharren. Asteartetik larunhatara. Esperientzia dut.
"v." (94) 682 78 18 Iratxe

Etxebizitzak

ETXE BAT ALOKATU EDO SALTZEN DUT Torreveijan (Alicante). Bungalow. Altzariak eta garajea.
"v" 74 24 26 Domingo

ETXE BAT ALOKATUKO nuke. Ez da handia izan behar. Ez zait axola non.
"v" 74 44 04 Ana (Gauez)
"v" 12 16 02 Maite (Goizez.)

Elgoiharren PISU BAT KONPARTITZEKO lagun haten beharrea gaude.
"tr" 65 38 76 Olatz

PISU BAT SALTZEN DA Mutrikun. 115m', itsasora begira eta gela guztiak kanpoko aldera ematen dute.
"v" 60 41 20
Arratsaldean 8etatik aurrera

Bestelakoak

2, BBBko GEOGRAFIA LIBURU BAT GALDU NUEN hilaren 4ean Lt burutegian. Gaztelani azkoa. Topatu duenak deitu 74 21 86ra.

CARITASEK BUTANOZKO SUKALDE BAT behar du.
"v" 74 15 09
"tr" 74 12 57

BI GILTZ SORTA aurkitu dira Aterpe tabernan.
"v" 74 25 95

BETAURREKO BATZUK galdu nituen duela hi aste.
"v" 74 05 78 Jon

Pilarika egunean San Migeleko Plazan mendizale BASTOI BAT aartu zen. 934ko datarekin.
"tr" 74 21 40 (Menditxo)

UME TXAKETA BAT galdu nuen Leku Eder eta Maalako parkeen bitartean urriaren 12an.
"tr" 74 32 94 Ana

OSASUNA

Anbulategia:
larrialdiak ~~74~~ 111
Txanda hartzeko ~~74~~ 3354
Planning ~~74~~ 2950
Alkoholiko Anonimoko ~~74~~ 3085
D.Y.A (anbulantzia) ~~74~~ 6422
Gurutze Gorria ~~74~~ 3864
Mendaroko Ospitala ~~75~~ 6264
Drogomenpekotasun Z ~~74~~ 1008
Odol Emailtck ~~74~~ 3936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak ~~74~~ 0442
PESA (Eibar) ~~112~~ 131
Taxi Geltokia ~~74~~ 0898

UDALA

Euskara Zerbitzua ~~74~~ 4366
Kirol Zerbitzua ~~74~~ 4415
Kultura Zerbitzua ~~74~~ 2158
Mendaroko Udala ~~75~~ 6100
Ongizate zerbitzua ~~74~~ 3736
Uda leixea ~~74~~ 050
Udaltzaingoa ~~74~~ 1394

BESTELAKOAK

Coritas ~~74~~ 0442
Elgoibarko Izarra ~~74~~ 1626
IMI ~~74~~ 196
Kontsumo Bulegoa ~~74~~ 3088
Liburutegia ~~74~~ 3525
Musika Eskola ~~74~~ 2145
Mintxeta ~~74~~ 4315
Parrokia ~~74~~ 0042
Polikiroldegia ~~74~~ 1361
Postexea ~~74~~ 4547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza ~~74~~ 0296
7aharren Biltokia ~~74~~ 0526

IKASTETXEAK

Herri eskola ~~74~~ 08 79
I.M.H. ~~74~~ 11 32
Institutua ~~74~~ 02 67
Ikastola ~~74~~ 11 41
L.H.I ~~74~~ 11 80
Pilar Ikasteixect ~~74~~ 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN ~~74~~ 11 12
El Diario Vasco ~~74~~ 40 73
El Mundo ~~74~~ 22 67
El Correo Espatiol ~~74~~ 10 82
Egin ~~11~~ 04 21
Deia ~~74~~ 11 57
Zazpiki ~~74~~ 34 74

II OSTIRALA

22,15 ZINEA

"Lobo"

✓ Herriko Antzokian

11 LARUNBATA

19,30 ESKUBALOI TALDEAREN
B1LERA

✓ Kultur Etxean

19,30 .22,15 ZINEA

"Lobo"

✓ Herriko Antzokian

13 IGANDEA

10,00 TXANPON ILARA
MINBIZIAREN ALDE

I/ Plaza Handian

Antolatzailea: Gurutze Gorria

13,00 DEBA BEHEKO EZINDUEN
TOPAKETA

Meza eta Bazkaria

✓ Zaharren Biltokian.

16,30 CHAVES TIRALDIA

Jarraian FESTA DO MAGOSTO

Gaztain eta ardo dastaketa

✓ Urasandiko Galiza Etxean

Antolatzailea: Galiza Etxea

16,30 ZINEA

"Los Aristogatos"

✓ Herriko Antzokian

19,30 • 22,15 ZINEA

"Lobo"

✓ Herriko Antzokian

V ASTELEHENA

17,00 DIAPOSITIBA EMANALDIA

Gaia: Tibet eta Nepal

Egileak: Rafa Berasategi eta
Koke Laso.

✓ San Lazaro egoitzan.

22,15 ZINEA

"Lobo"

✓ Herriko Antzokian

ASTEARTEA

22,15 ZINEA

"Cancion de Cuna"

✓ Herriko Antzokian

(Ikuslearen eguna)

1 ASTEAZKENA

13,15 NAZIOARTEKO IV. XAKE
TXAPELKETAREN AURKEZPENA

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Elgoibarko Udala,

Zubi Ondo Elkarte eta Xake

Federazioa.

1B OSTIRALA

18,00 ODOL ATERALDIA

✓ P. M. Urruzunoko egoitzan

19,30 • 22,15 ZINEA

"Forrest Gump"

✓ Herriko Antzokian

Z I N E A

"CANCION DE CUNA"

Zuzendaria: Jose Luis Garci
Antzesleak: Fiorella Faltoyano,
Amparito Larrañaga, Maria
Luisa Ponte eta Alfredo Landa.

Gregorio Martinez Sierra (1881-1947) idazlearen izenburu bereko antzerkia zinera egokitu zuen Jose Luis Garci zinemagileak. Dirua eta biolentzia nagusi diren gizartean, monja batzuek abandonatutako haur baten ardura hartuko dute. Nagusitzean monjengandik aldentzeko da, ezkondu eta Ameriketara bizitzera joateko. Estilo ariketa arriskutsua egiten du Garcik, kalitate handiko pelikula lortzen duelarik. Holliwood-eko Oscar sarietarako izendatutako pelikula da, atzerriko sailean.

ixandak

FARMAZIAK:

12, larunbata: Ormazabal

13, igandea: Ormazabal

14, astelehena: Etxeberria

15, asteartea: Etxeberria

16, asteazkena: Etxeberria

17, osteguna: Etxeberria

18, ostirala: Etxeberria

OKINDEGIA:

13, igandea: ZABALETA

Z I N E A



"LOBO"

Zuzendaria: Mike Nichols
Antzezleak: Jack Nicholson,
Michelle Pfeiffer, Jarnes
Spader.

Otso bihurtzen den gizonaren istorioa kontatzen du pelikula honek. Likantropiaren mitoaren istorio moderno eta orginal honetan, otso bihurtzen den ejekutiboak bakarrik lortu ahal izango du 90. hamarkadako lan mundu konpetitiboan aurrera egitea. Otso batek emandako hagindakaren bidez, otsoen ezaugarriarik onenak eta txarrenak izango ditu protagonistak. Karguz jeitsi nahi duen nagusiaren alaba ederra ezagutuko du protagonistak, eta maitasun istorioa sortuko da bien artean. Neskak, ordea, ez ditu ezagutzep haren ezaugarri bereziak.

iy. ItidloARTEKO
3CilkKE

PELICETA

R61¹kk 20tik 28ra

1.) 11(AATEGORIA

KLILTUR E 4EA

111,30





PROIEKTU, ERREFORMA,

AT.117jA

Ff,

AT

iniger
RMIN
12110
wommaj
wrzew
11014
11111111114
111111111111111

Aue

ital
101111111111111
111111111111111
111111111111111

my4
E/0

111111111111111ir
M1
MIMEIMENIM Meglio
zaziiwaligii ANP
MIMIMm Pili
illimillir



DEKORAZIOA

Santa Ana kalea 2 • Tel 74 35 09 • 20870 ELGOIBAR